

Cannesko 50.
Nazioarteko Zinemaldia

Auschwitz-etik etxerako bidean

Francesco Rosiren 'La truege' filmea atzo aurkeztu zen sail ofizialean

Auschwitz-eko esterminio esparruaren askapena eta bertako presoek beren etxetara itzultzeko jasan zuten gurutze bidea azaltzen du Francesco Rosi italiar zinemagileak atzo aurkeztu zuen filmeak. Primo Leviren izen bereko liburuan oinarritua dago 'La truege'.

Efe / Cannes

POLONIAKO esterminio esparrurik izugarrienetako baten azken egunetan kokatzen da Francesco Rosiren azken filmea. 1945 urtarilean Hitlerren erregimenaren gainbehera nabaria da eta naziak esparrua bertan behera uztear daude. Sobietar armadak askatuko ditu oraindik bizirik dauden presoak. Judu, ijito eta disidente politikoei etxerako bide luzea hasiko dute orduan.

Francesco Rosik bide batez, Italiak garai hartan izan zuen dilema ere kontatzen du, Mussoliniren erregimenak 1943ko uztaillean porrot egin zuen arte. Alemania lagundu baitzuen gero aliatuekin bat egiteko. Primo Levik 1963an idatzi zuen eleberrirautobiografikoan oinarritua dago Rosiren azken filmea. Veneciako Campiello saria irabazi zuen Levik Auschwitzeko bere esperientzia azaltzen zuen liburuarekin. Francesco Rosik atzo esan zuen Cannesen filmea egiteko Primo Levirekin harremanetan jarri eta aste batera hark bere burua hil zuela.

John Turturro aktore estatu-



Francesco Rosi erdian, John Turturro aktorearekin berriketan atzo Cannesen.

LURENT REBOURS

batuarrak egiten du Primo Levirena *La truege* filmean, baina, 25 urte gazteago izan bazen horretarako Woody Allen aukeratu zuela esan zuen atzo zinegile italiarrak. Bost urtez buru belarri jardun du Francesco Rosik filmean egiteko lanean, eta hainbat arazo izan ditu, laguntzaileak bilatzen zein parte hartuko zuten telebista kateekin.

Ukrainan —Poloniako zenbait hirietatik igaro ondoren hara iritsi zen kontzentrazio esparrueetatik askatutako italiar talde

bat— filmatzeko ere arazo ugari izan zituen, eta filmean agertzen diren hizkuntzak —italiera, grekera, frantsesa, alemana, errusiera, poloniera— koordinatzeko ere nahiko lan izan zuela azaldu zuen atzo Rosik. Horrek eragin du zinegilearen iritziz, filmean bi bertsio egitea, bat italieraz eta bestea ingelesez.

Bestalde, Philippe Harel frantziar zinegileak atzo aurkeztu zuen zinemaldiko sail ofizialean *La femme défendue* filmea. Pelikula osoa kamara subjektiboz

filmaturia dago, denbora guztian Muriel protagonista (Isabelle Carre) enfokatuz. Muriel gizon ezkondu batekin, filmeko unetxo batean soilik agertzen den Francois-ekin (Philippe Harel), maitemindua dago.

Gaur zinemaldiko sail ofizialean beste hiru filme aurkeztuko dira: Michael Haneke austriarraren *Funny games*; Curtis Hansonen *L.A. confidential*, Kim Basingerrekin; eta Samantha Lang australiarraren lehen luzemetraia, *Le puits*. X

Bajo Ulloaren filme berria ekainaren 20an estreinatuko da

■ 'Airbag' pelikulan Karra Elejalde, Maria de Medeiros, Paco Rabal eta Pilar Bardem ageri dira

Erredakzioa / Gasteiz

JADA eguna jarrita dago Juanma Bajo Ulloa zinemagilearen azken lanaren estreinaldirako. Ekainaren 20an Gasteizen ikusi ahal izango da lehen aldikotz. Lehenago estreinatzeko ahaleginak egin ditu Asegarce etxeak, filmean ekoizleak, baina ahalegin guztiak ustelak izan dira. Aste Santuaren ondoren zuen Asegarcek pantaila handira eramateko asmoa, baina azkenean ekainaren 20ra arte atzeratuko da.

Airbag hau hirugarren filmea du Juanma Bajo Ulloa zinemagileak. Iaz Santaderren eta Madril en egin zituen filmaketa lanak eta joan den irailerako bukatu zituen. Bostehun milioi pezetako aurrekontua izan du (20 milioi

libera inguru). Asegarce enpresa izan da ekoizlea. Aktore taldea goi mailakoa izan da. Bajo Ulloak lankide eta adiskide duen Karra Elejalde da protagonista nagusia. Paco Rabal, Maria de Medeiros, Fernando Guillen Cuervo, Alberto San Juan eta Pilar Bardem dira gainontzeko aktoreak.

Bajo Ulloak berak «filme lotsagabea» dela esan du. Gertakizunak abiadura handiz gertatzen dira, horietako asko ikusgarriak dira, baliabide tekniko bereziekin egin direnak. Ironia eta umorea ere bi elementu garrantzitsu dira filmean. «Donostiako hiru pijo dira protagonistak —azaldu du zinemagile gasteiztarra—. Erastun bat dela medio, mila kilometroko bidaia egingo dute eta izugarri aldatuko dira bost egu-



Airbag filmeko fotograma, Karra Elejalde ezkerrean dela.

netan. Gertatuko zaizkien abenturek, ezagutuko dituzten pertsonak, biziko dituzten esperientziek, zeharo aldatuko dituzte eta tontolapiko pijo batzuk izatetik hiru morroi sano eta heldu izatera igaroko dira. Guretzat pertsonaien heldutasuna dena beste batzuentzat itxura-

gabetze hutsa izango da, eta filmean amaieran guretzat aldatuta positiboa dena beste batzuentzat gaiztakeria hutsa izango da. Nik uste dut filmean asmatu egingo dugula ikusle batzuek ulertzen bagaituzte eta beste batzuk, aldiz, haserretzen badira». X

laburrean

■ Lazkao Txiki bertso-paper lehiaketa abian da

ORDIZIAKO Argi-Berri elkar-teak Lazkao Txiki bertso-paper lehiaketaren seigarren ekitaldia antolatu du eta bertan parte hartzeko deialdia zabaldu. Lehiaketa hiru mailatan banatuko da: 13 urte bitarteko maila, 14-18 urte bitarteko eta 1978a baino lehenago jaiotakoena. Gazteen alorrean gaia kirolak izango da eta beste bi mailatan berriz ez da gai jakinik erabili behar. Sariak berriz honako hauek dira: gazte-txoen artean irabazleak 20.000 pezeta (800 libera hor nonbait) eskuratuko ditu; kopuru horren erdia bigarrenak eta laurdena hirugarrenak. Gazteen taldean sariak 30.000, 20.000 eta 10.000 pezetakoak izango dira hurrenez hurren, eta, helduen artean berriz, 50.000, 40.000 eta 30.000 pezetakoak. Lanak bidaltzeko epea uztailaren lehenean amaituko da. Ordiziako Argi-Berri elkartera igorri behar dira. Sariak irailaren 14ean banatuko dira. X

■ Txomin Artola semearekin batera ariko da gaur Iruñeko Erraldoien Txokoa

TXOMIN ARTOLA Urbil semearekin batera ariko da kantari gaur, 8:30etatik aurrera, Iruñeko Erraldoien Txokoa. Aita-semeak berriki kaleratu duten *Hondarribian* diskoan bildutako kantak abestuko dituzte. Diskoa hamalau abestik osatzen dute eta joan den otsailan grabatu zuten *Hondarribian*. Lanak, Urbilen gitarra akustikoa tar-tekatuz, azken 27 urteetan Txominen kantagintzan egin-dako bide luzea laburbiltzen du. Lehen aldia da aita-seme diskoko bat grabatu dutela. Txomin Artolak urte andana daramatza musikaren munduan ezagun denez, bain semeak ere eman ditu bere urratsak eta besteak beste Sorotan Bele folk taldeko kide izan da. X

■ Tomas Garbizu soka orkestra ariko da bihar Donostian

DONOSTIAKO Antigua auzoan astelehenean hasi zen Aste Musikala aurrera doa. Aurtengoa 16. aldia da. Lehen bi egunetan Jakintza musika eskolako ikasleek izan dute parada euren musika jendearen aurrean jotzeko. Musikari gazte multzo handia aritu da horretan. Bihar Tomas Garbizu soka orkestrak joko du. Kontzertu berean ariko da Lezoko akordeoi taldea. Etzi, berriz, Antiguako abesbatzak kantatuko du eliz musika eta folklorea eskaintzeko asmoz. Bi kontzertu horiek Lugaritz kultur etxean izango dira 20:00etatik aurrera. X